

EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITA TEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## GUTUNA ETA OFIZIOA

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 15 ordu **HARTZAILEAK** EAeko Herri Administrazioetako langileak

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK** Lehenengo edo bigarren hizkuntza-eskakizuna gaindituta izatea.

**LEHENTASUNA** Erabilera-planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.

Ikastaroan tutoreek honako lanak egingo dituzte:

- Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongietorria emateko plataformaren bitartez.
- Kontsultak jaso eta argitu:
  - Ikastaroaren EDUKIarekin zerikusia dutenak, plataformako foro eta plataformako bestelako baliabideen bidez.
  - Erantzuna 24 ordutan emango dute.
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egin.

#### TUTORETZAK

**IKASTARO ESKAINTZA** Azaroaren 2tik 30era

**ESKATZEKO AZKEN EGUNA** Urriaren 14a

**ONIRITZI EPEA** Urriaren 17tik 21era

**BAJAK EMATEKO EPEA** Azaroaren 2a eta 3a

### ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU OROKORRAK** Administrazio-hizkeraren oinarrizko kontzeptuak, eta gutuna eta ofizioa euskaraz idazteko oinarrizko irizpideak ezagutzea.

**GAITASUNAK** Ikasleak prestakuntza-ekintza amaitzean egoki erabiliko ditu:

- Administrazio-hizkeraren oinarrizko irizpideak.
- Gutuna idazteko oinarrizko irizpideak.
- Ofizioa idazteko oinarrizko irizpideak.



EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITA TEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## GUTUNA ETA OFIZIOA

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

#### METODOLOGIA

Ikastaroak teoria eta praktika uztartzen ditu. Ikastaroak 4 atal nagusi ditu eta, bertan, hainbat unitate didaktiko. Unitate bakoitzean leiho tutorial baten bidez teoria landu eta programak berak edo norberak zuzentzeko ariketa batzuk proposatuko dira; gainera, programak aukera ematen du jarraibideak ikusteko, entzuteko edota irakurtzeko. Horrez gain, unitate gehienek tutoreari bidali beharreko jarduera bana izango dute.

Irakasle batek gidatuko du ikasle-taldea eta bakoitzaren urratsak jarraituko ditu.

#### PROGRAMA

1. Atariko unitatea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazio-hizkeraren kalitatea: hizkera zuzena, argia eta egokia.</li> <li>Idazterakoan kontuan izan beharrekoak: idazketa-prozesua, gramatika, estiloa, diseinua eta zuzenketa.</li> </ul>
2. Idazketa-prozesua urratsez urrats	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idazten hasi aurreko lana atondu.</li> <li>Ideiak sortu.</li> <li>Testua antolatu.</li> <li>Testua idazteko kontuan hartu behar ditugunak.</li> </ul>
3. Gutuna 3.1 Gramatika	<ul style="list-style-type: none"> <li>Letra larria eta xehea.</li> <li>Data.</li> <li>Puntuazioa.</li> <li>Siglak.</li> <li><i>Eta</i> juntagailua eta deklinabidea.</li> <li>Hau, hori, hura.</li> <li>Aditzaren komuntadura.</li> </ul>
3.2 Estiloa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gutunetan sarri egiten diren zenbait estilo-akats.</li> <li>Hartzailea kontuan hartu.</li> <li>Egilea agerian utzi.</li> <li>Aditza aurreratu.</li> <li>Esaldi laburrak erabili.</li> <li>Aditza hobe izena baino.</li> <li>Erdal gerundioak.</li> </ul>



EUSKALDUNTZE ARLOA:	ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITA TEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## GUTUNA ETA OFIZIOA

### PROGRAMA

#### 3.3 Diseinua

- Gutunen diseinua.
- Hartzailearen datuak.
- Data.
- Hasiera eta bukaerako agurrak.
- Izenpea.
- Izenburuak.
- Paragrafoak.
- Lerrotatzeak.
- Zerrendak.

#### 3.4 Zuzenketa

- Gutuna atalez atal eta osotasunean zuzendu:
- Gramatika aldetik.
  - Estilo kontuak.
  - Diseinua.

#### 4. Ofizioa

- Hartzailearen datuak.
- Izenburua.
- Hasierako eta bukaerako agurrak.
- Informazioa aurreratu.
- Data eta izenpea.

### EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.

Ikastaroak 6 jarduera ditu eta horietan oinarrituko da ebaluazioa. Ikasleak ikastaroko jarduerak egin eta bidaliko dizkio irakasleari, horrek ikasleari zuzendu eta lanaren feedbacka eman diezaion. Era berean, tutoreak gomendatuko du edukiak noizko ikasi eta jarduerak noizko egin behar diren.

- Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta plataforma barruan dago ikastaroko edukien azpian.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

**Aprobetxamenduko** ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- > Irakasleari, gutxienez, ikastaroko jarduera guztiak bidali.
- > Ikastaroko 6 jardueretatik 5ek, gutxienez, gai kalifikazioa jasotzea.

IVAPek igorriko ditu ziurtagiriak Zerbitzu Zuzendaritzetara edo antzekoetara.

### PREZIOA

**107 €**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. EHA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

